



**Kontratazio**  
publiko elektronikoa  
**Contratación**  
pública electrónica

## Eskaintzak Era Digitalean Aurkezteko Jardunbideak

[www.contratacion.info](http://www.contratacion.info)  
[www.euskadi.net/kontratazioa](http://www.euskadi.net/kontratazioa)



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

OGASUN ETA HERRI  
ADMINISTRAZIO SAILA

DEPARTAMENTO DE HACIENDA  
Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA

08

## PDF Formatuak Erabiltzea

Eusko Jaurlaritzaren Kontratazio Publikoaren Ereduaren Araudiak onartzen du PDF formatuaren erabilera.

PDF formatua fitxategiaren inprimatze formatua da, eta fitxategiak konprimatzeko eta optimizatzeko gaitasuna du, non eta inprimatzeko aukerak ez dauden bereizmen handietarako gaituta. Gure ustez, 300 ppp bereizmena erabiltzea da gomendagarriena, eta edonola ere, inoiz ez 600 ppp-gik gora.

PDF formatuak gainera, abantaila hauek ditu:

- Dokumentuak aldaezinak dira, edo gutxienez, aldatzen oso zailak.
- Internet bitartez dokumentuak trukatzeko estandar bat da, eta irakurgailua doakoa da (Adobe Reader).
- PDFrako hainbat bihurgailu dago, era askotako formatuetarako; hainbat formatutako dokumentuak batzeko eta bateratzeko aukera ematen du.

PDF dokumentuak sortzeko, Adobe Acrobat merkataritza programa behar da.

## Eskaneatutako Dokumentuak Eranstea

Eskaneatutako dokumentuek jatorrizkoek baino bolumen handiagoa hartzen dute, oro har. Bestalde, gaur egun, dokumentu ia gehienak digitalak dira jatorriz. Bi arrazoi horiek kontuan hartuta, gure gomendioa honakoa da:

- Agiri eskaneatuak ez erabiltzea, eta ahal den guztietan, jatorrizko dokumentua, formatu digitalean, eranstea.
- Eskanerraren bereizmena mugatzea, dokumentua ulergarria izan dadin, baina tamaina handia hartu gabe. 300 ppp-ko bereizmena erabiltzea da gure gomendioa.
- Eskaneatutako dokumentuak beren tamaina optimizatzen duten fitxategi formatu batean gordetzea. Hau da gure gomendioa:
  - Dokumentuak, lehenbizi TIFF formatuan gordetzea.
  - Ondoren, PDF formatura bihurtzea.

## 6. BIRUSAK

Eskaintzak irakurketa zailtzen edo galarazten duten birusik gabe bidaliko dira. Eskaintzaileen erantzukizuna da hori horrela izango dela ziurtatzea. Eskaintzak birusa badu, ez da hori kanporatzeko arrazoi nahikoa, baldin eta eskaintzaren edukia eskura badaiteke. Mahaiaren Idazkariak du gai horretan erabakia hartzeko eskumena.

Gai horri buruz honako gomendio hauek egiten ditugu:

- Antibirusa eguneratuta edukitzea.
- Dokumentuak birusak jotzeko arrisku gutxien duten formatuetan igortzea, bereziki PDF, rtf, swx, jpg eta tiff formatuetan, eta oro har, kode betearazlea edukitzeko aukera eskaintzen ez duten formatuetan.



Eredu erraz, erabilgarri  
eta segurua

## B) IZENPE SINADURA SOFTWAREak EZARTZEN DUEN MURRIZKETA

Taula honetan erabiltzeko libre dagoen RAM memoriaren arabera izenpetu daitezkeen tamainen gutxi gorabeherako datuak agertzen dira:

- Erabiltzeko dagoen RAM memoria sistemaren memoriaren eta aktibatuta dauden programen arabera da. Horregatik, fitxategiak izenpetu aurretik aktibatuta dauden programa guztiak ixtea komeni da.
- Askotariko izenpearen kasuan (administratzaile elkartuak), izenpe osagarri bakoitzeko 10 MB murriztu behar da fitxategiaren tamaina, gutxi gorabehera. Hau da, eskaintzaileak 256 MB RAM baditu, eta hiru sinadura behar badira, igorri beharreko fitxategien gehieneko tamaina honakoa izango da:

$$35 - 2 \cdot 10 = 15 \text{ MB}$$

RAM memoria (MB)	Fitxategiaren neurria (MB)
256	35
1024	75-80

## Osagai Grafikoak Eranstea

Marrazkiek, argazkiek, eta oro har, osagai grafiko guztiak, nabarmen handitzen dute fitxategien tamaina.

Horregatik, osagai grafikoak zentzuz erabiltzea komeni da:

- Saihestu funtsezkoak ez diren osagai grafikoak.
- Osagai grafikoaren tamaina aurkezpenean hartuko duen eremura egokitu.
- Osagai grafikoaren tamaina txikiagotzen duten formatuak erabili (JPEG, GIF).
- Kolore kopuruaren konfigurazioa arrazionalizatu.
- Ereduak erabili dokumentu osoan zehar errepikatzen diren osagai grafikoak sartzeko.

## Katalogoak eta Merkataritza Aurkezpenak Sartzea

Katalogoek eta merkataritza aurkezpenek (diptikoak, memoriak, etab.) nabarmen handitu dezakete fitxategien tamaina.

Horien erabilera optimizatzea gomendatzen da:

- Interneten katalogoak edo aurkezpenak edukiz gero, dokumentu teknikoetan lotura bat (link) egin eskaintzaren barruan garrantzizkoak diren osagai zehatzetara. Era horretara, administrazioa horietara sartu ahal izango da, Eskaintza Elektronikoa aplikazioan kargatu beharrik gabe.
- Jatorrizko formatu digitalak erabili agiri eskaneatuak erabili beharrean.
- Edukiak mugatu, Administrazioak kontratatu nahi duten produktu edo zerbitzuekin zehazki lotuta daudenetara.
- Zentzuzko bereizmena duten fitxategi formatuak erabili.

## Dokumentuak Formatu Konprimituan Aurkeztea


Fitxategietan formatu konprimituak erabiltzea da igorri beharreko dokumentuen tamaina murrizteko modu errazenetako bat.

Eusko Jaurlaritzaren Kontratazio Elektronikoen Ereduaren Araudiak .zip eta .7z konprimatzeko formatuak erabiltzeko aukera ematen du.

Horretarako, dagozkien konpresio aplikazioak eduki behar dira:

- WinZip merkataritza produktua .zip formatuari dagokionez.
- Doako softwarea GNU 7zip lizentziarekin; internetetik deskargatu daiteke .7z formaturako.

Fitxategi konprimatuak fitxategi bat baino gehiago badu, horien izenak inprimatzeko ordena era esplizituan adieraztea komeni da.





#### 4. DOKUMENTUAK IGORTZEKO ANTOLATZEA

Eskaintzak kargatzeko prozesuan ez dadin nahasketarik sortu, eta Administrazioari horiek interpretatzeko lana errazteko helburuarekin, dokumentuak igorri aurretik horiek nola antolatu azaltzeko gomendio batzuk ematen ditugu:

- Karpeta bat sortu eta karpeta izenean dagokion kontratazio espedientearen kodea edo deskribapena jarri.
- Karpeta berriaren azpian, karpeta bat sortu gutun-azal bakoitzarentzat.
- Gutun-azal bakoitzaren karpeta barruan, atal bakoitzeko fitxategi bat sortu. Fitxategiaren tratamendua errazteko, komenigarria da fitxategiaren izenean atalaren eta enpresaren izena jartzea, adibidez: "Metodologia - Enpresa eskaintzailea S.A..ppt"

#### 5. FITXATEGIEN TAMAINA

Eskaintza Elektronikoa aplikazioak ez du inolako mugarik jartzen fitxategien tamainari dagokionez. Edonola ere, prozesuan hainbat osagai daude igor daitezkeen fitxategien tamaina mugatzen dutenak:

- Internet bidez eskura daitezkeen Eusko Jaurlaritzaren aplikazioentzako euskarri lana egiten duen zerbitzariak muga jartzen du konexio denborari dagokionez: 2 ordu inguru.  
Eskaintzaileak ezingo du, beraz, denbora tarte horretan bere konexioaren banda zabalerak transmititu ditzakeen dokumentuak baino dokumentu handiagorik igorri.
- IZENPE sinadura programak sisteman libre dagoen RAM memoriaren arabera mugatzen du izenpetu daitezkeen fitxategien tamaina.

A) KONEXIOEN IRAUPEN MUGAREN ONDORIOZKO MURRIZKETA  
Taulan 2 ordutan zer tamainako dokumentuak igor daitezkeen ikusten da, erabil dezakegun banda zabalaren arabera, noski.

Abiadura nominala	Fitxategiaren neurria (MB)	
	Erabilgarritasuna %100	Erabilgarritasuna 50%
28 Kbps	25	12
56 Kbps	49	25
64 Kbps	56	28
128 Kbps	113	56
256 Kbps	225	113
512 Kbps	450	225
1 Mbps	900	450
2 Mbps	1.800	900
4 Mbps	3.600	1.800
8 Mbps	7.200	3.600
20 Mbps	18.000	9.000

- Banda zabalaren erabilgarritasuna hainbat faktorearen araberakoa da (lineen saturazioa, iturriaren/helburuaren erabilgarritasuna, etab.), beraz, askotan transmisioaren abiadura ez da balio nominalera iristen; hainbatetan, gainera, balio askoz ere apalagoetan mugi daiteke. Hori dela eta, taulan eskaintzen diren datuak -%100eko banda zabalera erabilgarritasun oinarrituak (erdiko zutabea)-, ez dira segururik, baikorregiak baizik; %50eko banda zabalaren erabilgarritasun kalkulak errealistagoak dira, inondik ere (eskuineko zutabea). Edonola ere, eskaintzen diren datuak gutxi gorabeherakoak dira.
- Eskaintzaileak ADSL konexioa badu, kontuan hartu behar du era horretako konexioetan banda zabalera ez dela simetrikoa; datuak jasotzeko bidaltzeko baino handiagoa da. Eskaintzak bidaltzeko, eskaintzaileak ez du kontuan hartu behar banda zabalaren balio nominala, baizik eta zerbitzuaren kontratuan agertzen den beste bat.



### 3. ATAL BAKOITZEKO FITXATEGI BAKAR BAT AURKEZTEA

Lehiaketa jakin baten eskakizun tekniko eta administratiboen arabera, Kontratazio Mahaiko Idazkariak hainbat atal (edo ontzi) definituko ditu gutun-azal bakoitzeko (A, B, C).

Eskaintza Elektronikoaren Aplikazioak, definitutako atal bakoitzarentzat, fitxategi bakar bat onartzen duen ontzia du.

Atal bakoitzaren edukia, ondoren irakurri, aztertu eta baloratzeko, tonu bakarrean eta bereizian inprimatu eta koadernatuko da, eta horren izenburua eta atalaren izena bat etorriko dira.

Eskaintzaileak atal bati buruzko informazioa biltzeko fitxategi bat baino gehiago erabili baditu, fitxategi bakar bat sortu beharko du fitxategi horien guztien edukietatik abiatuta. Horretarako, urrats hauek egin beharko dira:

- Fitxategi guztiek formatu bera badute, horiek guztiak formatu bereko dokumentu bakar batean bildu. Horretarako, aipatutako formatuarentzat edizio tresna besterik ez da behar. Eskaintzaileak ziurtatu beharko du fitxategiak orden egokian biltzen direla, dokumentu osoa egoki interpretatzeko moduan alegia.
- Fitxategiek ez badute formatu bera, formatu bakarrera bihurtu eta emaitzak bateratu. Horretarako beharrezkoak dira:
  - Formatu desberdinak formatu bakarrera eramateko bihurgailuak.
  - Dokumentuak formatu komun horren arabera bateratzeko tresna bat.

Gaur egun, Adobe Acrobat software-ak aukera eskaintzen du formatu ofimatiko ohikoenak PDF formatura bihurtzeko eta formatu horretako hainbat fitxategi bateratzeko. Formatu horrek, bestalde, fitxategiak trinkotzeko eta optimizatze ahalmena du, baldin eta inprimatze aukerak ez badaude bereizmen handietarako gaituta (1200 ppp).

Aurreko kasuan bezala, eskaintzaileak ziurtatu beharko du fitxategiak dagokien ordenan batzen direla, dokumentu osoa egoki interpretatu ahal izateko.

- Fitxategiak fitxategi konprimitu bakar bati erantsi. Formatu konprimituek aukera ematen dute hainbat formatutako fitxategietatik abiatuta fitxategi konprimitu bakar bat lortzeko.

Eusko Jaurlaritzaren Kontratazio Publiko Elektronikoaren Ereduaren araudiaren arabera, fitxategiak konprimatzeko .zip eta .7z formatuak erabili litezke.

Horretarako, konprimatzeko dagozkion aplikazioak behar dira:

- .zip formatua: WinZip produktu komertziala.
- .7z formatua: 7zip doako software-a, Interneten deskargatu daiteke.

Fitxategi konprimitu batek fitxategi bat baino gehiago hartzen dituenean, eta bertatik ateratzen den dokumentuak koherentzia izan dezan edukiei dagokienez, horien izendapenean zer ordenatan inprimatu eta koadernatu behar den aipatzea komeni da, eta ahal dela aurrizki modura agertu behar da:

"01.Eskaintza osatzen duten prezioen xehetasuna.ptt"  
"02.Eskaintza osatzen duten prezioen xehetasuna.ptt"

Eredu erraz, erabilgarri  
eta segurua



# Eskaintzak Era Digitalean Aurkezteko Jardunbideak

Eusko Jaurlaritzaren Kontratazio Elektronikoaren Eredua martxan jarri ondoren, proposamenak egiteko prozesuari eta eskaintza telematikoetan sartu beharreko agiriei buruzko hainbat gomendio eskaini nahi dizkizugu, emaitza ahal bezain ondoen bidali eta interpretatu ahal izateko.

## 1. ARAUDIA

Eusko Jaurlaritzaren Kontratazio Elektronikoaren Ereduari buruzko Araudiak honako hau dio bidali beharreko agiriei buruz:

- Agiriak irakurri eta bideratuko direla bermatzen da, baldin eta formatu hauetan bidaltzen badira:

doc, xls, ppt, pdf, rtf, sxw, abw, jpg, bmp, tiff, zip eta 7z.

- Telematika bidez jasotako eskaintzak kalitate egokiarekin inprimatuko direla ziurtatzeko moduan tratatuko dira.
- Aplikazioak ez du gutun-azal bakoitzerako definitutako atal (edo ontzi) bakoitzean fitxategi bat baino gehiago sartzeko aukera ematen.
- Araudiak ez du fitxategien tamaina mugatzen; hala ere, badaude aurkeztu beharreko agirien tamaina mugatzen duten baldintza teknikoak ere.
- Eskaintzaileen erantzukizuna da eskaintzek birusik ez dutela zaintzea.
- Agiri bat formatu elektronikoan zein formatu idatzian jasotzen bada, agiri elektronikoa bakarrik hartuko da kontuan.
- Fitxategi digitalak euskarri fisikoan (CD) bidaltzeko aukerarik ez da kontuan hartuko.

## 2. TELEMATIKA BIDEZ BIDALITAKO ESKAINTZEN INPRIMATZE KALITATEA

Eskaintzak formatu digitalean eta inprimatuta bidaliko dira aztertze eta balorazio egiteko. Aztertu beharreko agiriek, paperean edo telematika bidez bidali diren kontuan hartu gabe, antzeko kalitate maila izango dutela ziurtatzeko, Eusko Jaurlaritzak inprimatzeko baliabide aurreratuak ditu, eta Eskaintzen Inprimatze Kalitaterako Konpromisoa hartu du.

Konpromiso horren helburua da bermatzea:

- Agiriak, osorik, kalitatez inprimatuko direla enpresak aurreikusita dituen formatuan, edo antzeko beste batzuetan.
- Eskaintza guztiak era homogeen eta kalitatez karpetatuko direla. Horretarako, paperean jasotako eskaintzak berriro ere ohiko formatuan karpetatuko dira.

Horretarako, Eskaintzen Inprimatze Kalitatea Ziurtatzeko prozedura definitu da; Eusko Jaurlaritzaren Inprimategia eta Erreprografia Zerbitzuaren eta Kontratazio Publiko Elektronikorako Ereduaren arduradunen artean hitzartu da.

Eusko Jaurlaritzaren Inprimategia eta Erreprografia zerbitzuak eskaintzak inprimatzen dituen kontuan hartu beharko du lortzen den produktuak agiri telematikoari dagokionez leiala izan behar duela, aplikazio elektronikoaren bitartez jaso bezala. Horregatik, eskaintza egiten duen enpresak agiri inprimatuari eman nahi dizkion ezaugarri guztiak eman beharko dizkio agiri digitalari.

Adibidez, enpresak bere eskaintzak Power-Point programaren bitartez eskaintzeko ohitura badu, eta orrialdeak laukiztatuzko "laukiztatu" aukera erabiltzen badu, eta emaitza goiko irudiaren antzekoa izatea nahi badu, "diapositiba eredua" aukeran formatu digitalean ere ikus litekeen laukia sartu beharko da; halakorik egiten ez bada, beheko irudiak erakutsi bezala agertuko da orrialdea, Inprimategia eta Erreprografia Zerbitzuko teknikariek ez baitakite zer estilo eman nahi dioten enpresek inprimatutako agiriri.

